



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2020ko urriaren 29a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoan, udaletxean, eta telematikoki

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:00

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oriden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oriden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- 2020ko udal-aurrekontuaren lehen bederatzi hilabeteen exekuzioaren berri ematea.



- 2.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 8/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteak, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 3.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 9/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteak, kreditu gehigarriaren modalitatean.
- 4.- Bertan behera uztea, egoki bada, 2020ko udal-aurrekontu propioaren kreditu ez erabilgarri batzuk.
- 5.- Onartzea, egoki bada, AGITAX Gipuzkoako Taxi Elkarteak bidalitako 2021erako taxi-tarifa urbanoak.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Musika Eskolako tarifen hobari-proposamena 2020-2021 ikasturterako.
- 7.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- 2020KO UDAL-AURREKONTUAREN LEHEN BEDERATZI HILABETEEN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gai honen berri 2020ko urriaren 26an egindako Ogasun eta Pertsonaleko batzordean eman da alde zuzena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 8/2020 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 8/2020 zenbakidun espedienteak kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 53.981 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko urriaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2020ko aurrekontuari dagokion 8/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedienteak kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 53.981 euroko zenbatekoa du.



2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 9/2020 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIAREN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 9/2020 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 73.741 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko urriaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2020ko aurrekontuari dagokion 9/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 73.741 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza



b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- BERTAN BEHERA UZTEA, EGOKI BADA, 2020KO UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN KREDITU EZ ERABILGARRI BATZUK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarrak, 2020ko apirilaren 30eko ohiko bilkuran, hau erabaki zuen:

ONARTZEA 2020ko Udal Aurrekontu Propioaren kreditu ez erabilgarriak, guztira 714.995,25 euroko zenbatekoa dutenak: 489.856 euro, inbertsio-gastuak dira, eta 225.139,25 euro, berriz, gastu arrunta.

Kontuan hartuta udal diru-bilketak hobekuntza txiki bat izan duela 2020ko apirilean COVID-19a dela eta egindako aurreikuspenetan, bidezkoa da Udalaren 2020ko aurrekontu propioko kreditu ez-erabilgarri batzuk bertan behera uztea proposatzea, guztira 103.388 eurokoak, gastu arruntari dagozkionak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko urriaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

BERTAN BEHERA UZTEA Udalaren 2020ko aurrekontu propioko kreditu batzuk, guztira 103.388 eurokoak, gastu arruntari dagozkionak.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du, COVID-19ak eragindako pandemia dela-eta, Udalaren diru-sarrerak nabarmen gutxitzea aurreikusi zutela apirilean eta horrek behartu zuela Udala 2020ko udal-aurrekontuko gastuen egoeran kreditu ez-erabilgarri



batzuk jasotzera; hau da, aurrekontu-partida batzuk «izoztuta» uztera aurrekontu-ekitaldiaren bilakaera zein zen ikusi arte, ekitaldiaren amaieran erabakitzeke zer egin, momentuko aurrekontu-egoeraren arabera. Egoerak zuhurtziaz jokatzeko eskatzen zuen eta horregatik hartu zuen Udalak erabaki hura 2020ko apirilaren 30eko udalbatzarrean.

Une honetan, ordea, udal diru-bilketa pixka bat hobe da 2020ko apirilean egindako aurreikuspenak baino. Udal-kanpinaren eta TAOaren kudeaketaren ondorioz bildutako diru-kopurua aurreikusitakoa baino handiagoa izan da eta, horri esker, posible izan da Udalaren 2020ko aurrekontu propioko kreditu ez-erabilgarri batzuk bertan behera uztea. Guztira, 103.388 euroko diru-kopurua da eta bertan nabarmentzekoa da Udalak herriko kultur eta kirol elkarteei ematen dizkien dirulaguntzetan ez dela, azkenean, % 25eko murrizketarik aplikatuko.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AGITAX GIPUZKOAKO TAXI ELKARTEAK BIDLITAKO 2021ERAKO TAXI-TARIFA URBANOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. AGITAX elkarteak eskaria aurkeztu du, 2021ean auto-taxi zerbitzuaren tarifak ez igotzea proposatuz; ondorioz, 2021ean indarrean segituko lukete 2020rako onartutako tarifak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko urriaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

EZ IGOTZEA auto-taxi zerbitzuaren Orioko tarifak 2021erako eta, beraz, indarrean mantentzea Udalak 2020rako onartu zituenak:

AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOAK 2020			
PROPOSAMENA	GUTXIENeko TARIFA	Kilometro bakoitzeko	ITXAROTEN PASATAKO ORDUA
1. TARIFA*	5,4779	1,1690	22,3252
2. TARIFA**	6,5208	1,8645	36,4415

Gutxieneko tarifaren barruan sartuta daude ibilbideko 1,5 kilometro edo itxaroten pasatako 5 minutu.

(*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.



(**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. 2. tarifa aplikatuko da, baita ere, igandetan, larunbatetan eta jai egunetan, eta abenduaren 24an eta 31n, 07:00etatik 22:00etara.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, MUSIKA ESKOLAKO TARIFEN HOBARI-PROPOSAMENA 2020-2021 IKASTURTERAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko urriaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

% 25eko HOBARIA APLIKATZEA Orioko Danbolin Musika Eskolako musika-mintzairako eta dantzako ikasgaien tarifetan, 2020-2021 ikasturtean.

Hobari horiek direla eta, 8.723 euroko murrizketa izango da Udalaren diru-bilketan.

Emandako botoak azaltzeko, Xabier Ibarguren Azkue zinegotziak (EH BILDU) hartzen du hitza, Kultura batzordeko buru den aldetik, eta adierazten du COVID-19aren pandemiak eragin zuzena izan duela dantzako klaseen aforoan eta musika-mintzairako ikasgaien: dantzako taldeak murriztu egin behar izan dira eta musika-mintzairako klaseak astean bi ordukoak izatetik astean ordubetekoak izatera pasatu dira.

Ondorioz, Orioko Udalak erabaki hau hartu behar izan du, Danbolin Musika Eskolako musika-irakaskuntzen tarifetan %25eko hobaria aplikatuz musika-mintzairako eta dantzako ikasgaietan, 2020-2021 ikasturtean. Xabierrek adierazten du Udalak Musika Eskolaren aldeko apustua egiten jarraituko duela, kulturaren aldeko inbertsioa delako.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Alkateak hartzen du hitza eta hau adierazten du:

- Oriotarrei gogorarazten die plaza berrurbanizatzeko lanak amaitzear daudela, eta 2020ko Gabonetarako guztiz amaituta egotea aurreikusten duela.
- Argiteria publikoa berritzeko obrek eragindako arazoen berri ematen du eta adierazten du eskertzen duela herritarrek erakutsi duten pazientzia eta ulermena.
- Azkenik, zorionak ematen dizkie herritarrei, COVID-19aren pandemiaren datuak onak izan direlako azken aldian; elkar zaintzen jarraitzeko eskatzen die eta adierazten du oriotarren osasuna eta ongizatea izango direla beti bere lehentasuna.



ORIOKOU DALA



Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, alkateak bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,